



**024/2019 EBAZPENA, urriaren 23koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako Administrazioi Menpekoen kidegoko lan-poltsa handitzeko deialditik datozen langileak integratzeari buruzkoa.**

---

Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiak (EHAA, 2006ko ekainaren 13a) EAĒko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz aplikatu beharreko arauak zehazten ditu, eta 4. eta 22. artikuluetan ezartzen du Administrazio horren lan-poltsak zein kasutan eratu eta handitu behar diren.

Administrazio honek beharrezkotzat jo zuen lan-poltsa jakin batzuk handitzea, IVAPek egindako deialdi zehatzen bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakiaren 22.1 a) artikulua arabera. Hala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 31ko Ebazpenaren bidez, Menpekoen Kidegoaren lan-poltsa handiagotzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egin zen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 16ko Ebazpenaren bidez Menpekoen kidegoaren lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratu, eta prozesua amaitu ondoren, langile horiek dagokien lan-poltsan integratuko dira, deialdian bertan jasota dauden baldintzen arabera. Beraz, langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesutik atera den hurrenkeran bertan, eta euren puntuazioa zero izanik.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabaki horretan xedatuta dagoenaren arabera, Ebazpen hau eta lan-poltsa eguneratuaren zerrenda argitaratuko dira, Administrazioak bere informazioa hedatzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan. Hala, lan-poltsari buruzko informazio hori eskuragarri egongo da, interesdunek jakin dezaten.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 2017ko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 16. artikulua emandako eskumenaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren 4. artikulua arabera, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**1. artikulua.-** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 16ko Ebazpenean zerrendatutako langileak integratzea gainditu duten handitze-prozesuari dagokion lan-poltsan, honako irizpide haien arabera:

a) Langile horiek indarrean dagoen lan-poltsako azken langilearen ostean sartuko dira, hautaketa-prozesutik atera den hurrenkeran, Ebazpenean jasota dagoenez, eta euren puntuazioa zero izanik.

b) Integratutako langileei gertutasun osoa onartuko zaie mota guztietako eskaintzetarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu osorako. Hortaz, edozein iraupenetako eta Edozein Lurralde Historikotako eskaintzak jasoko dituzte. Bi gertutasun-mota horiek interesdunek aldatu ahalko dituzte, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 6. eta 7. artikuluen arabera.

**2. artikulua.-** Handitzeko prozesuari dagokion lan-poltsaren zerrenda berria argitaratzea [www.euskadi.eus/bolsastrabajo](http://www.euskadi.eus/bolsastrabajo) helbidean. Zerrenda horrek ondorioak izango ditu argitaratzen den egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari hilabeteko epean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orriko [www.euskadi.eus/bolsastrabajo](http://www.euskadi.eus/bolsastrabajo) helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 23a.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA  
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA  
GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA  
Euskadi - Euzkadi - País Vasco - País Vasco  
Departamento de Gobernantza  
Pública y Autogobierno  
Viceconsejería de Función Pública